

azpeitian zer?

L19. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko uztaila



**Azpeitia
sasoiko**

*Udalak herriko kirolari eta taldeak zoriondu
nahi ditu lortutako emaitza historikoengatik*



3 Inkesta

4 Herritarrei erantzunez

5 Saihesbidearen lanak abian

6 Lehiaketetako sari banaketa

8 Kirol taldeen emaitza onak

12 Motxean

14 Drogasaleatasuna

15 Euskara ordenantzak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala

Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000

L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko /Gazte		Museoa	943 81 24 48		
Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 61			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 71 94			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearreetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?

Udako oporretan zerren premia somatzen duzu Azpeitian?



Lourdes Iburguren

“Jendearen falta somatzen dut nik. Ez da inor ibiltzen: goizean-eta agian mugimendu apur bat izaten da, baina bestela ezer ez. Tabernak, dendak, denak itxita egoten dira eta ez da animarik ikusten. Ni neu bertan gelditzen naiz, baina egia esan, abuztuan Azpeitian ez nuke aparteko ezer gehiago jarriko, jenderik ez baita egoten, eta inor ez dagoen tokian edozer antolatzea alferrik da”.



Emili Calero

“Ni neu ez naiz hemen egoten. Badira 50 urte abuztuan Azpeitian izaten ez naizela, baina lagunek esaten didatenez, hau oso triste egoten da. Tabernak itxita, kalean ia inor ez... ez omen da ezertarako aukerarik egoten. Agian bertan gelditzen diren herritarrentzat tabernak zabaldu eta kalean zerbait gehiago jarri beharko lukete, daudenak behintzat ez aspertzeko, gero eta herritar gehiago gelditzen da-eta”.



Arantxa Arrizabalaga

“Gazteentzat eta asteburuetan zerbait jarri beharko lukete, behin festak pasatuta Azpeitian ez baita ezer egoten. Baina hori bakarrik ez: gero eta jende gehiago gelditzen da herrian, eta horientzat aukera ezberdinak jarri beharko lituzkete. Gauzak egon egoten dira, adibidez, azoka ere egiten dugu, baina jendea bertara bideratzea falta da, eta agian hortik egin beharko litzateke ahalegin berezia udan”.



Marisol Orbegozo

“Azpeitiarrentzat bakarrik ez, kanpotik etortzen diren turistentzat ere zerbait gehiago jarri beharko lukete. Izan ere, turista batzuk monumentuak ikustera bakarrik etortzen dira, baina beste batzuk agian bertan gelditu, eta bertako taberna, jatetxe, eta giroa ezagutu nahiko dute, eta behin festak pasatuta hemen ez da horretarako aukerarik egoten. Aukera ezberdinak egon beharko luketeela uste dut”.

Herriarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Iradokizuna

- Garmendiko parkea

Garmendiko parkeak, Institutotik gertu dagoenak, berritu bat beharko luke (garbitasun sakon bat, pintatu eta segurtasuna bermatu). Gainera, bertan eskutitzen buzoi hori horietako bat kendu beharrean dago, herdoilduta eta zulatuta, oso egora txarrean baitago. Espaloi berriarekin batera aldaketa hau beharrezkoa ikusten dugu.

Jasone Etxabe

Maria Isabel Alberdiguren

Erantzuna

Auzo horretan errepidea eta espaloiak konpontzen ari gara orain, eta lan horiek amaitutakoan parkea berritzekotan gara. Eskutitzen buzoi konpontzea, berriz, Correosi dagokio, eta jakinarazi diogu buzoi hori egoera kaskarrean dagoela.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

- Wifia doan

Azpeitian wifi sareak doan jartzea proposatzen dut, gazteek Internetera sarbidea dohainik izan dezaten eta euren gurasoek aparteko gasturik egin ez dezaten.

Erantzuna

Proposamen egokia iruditzen zaigu, baina hori egitea oso garestia da, eta egun-

go egoera ekonomikoa dela eta, Udalaren baliabideak nabarmen murriztu dira. Diru sarrerak bere onera itzulitakoan aztertuko dugu proposamena.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

- Webgunera sarrera

Mesedez Azpeitiko webgunean informazioa euskaraz jarri, eta ez gazteleraz. Hau Azpeitia da, eta ez Murtzia.

Igone Urbiet

Erantzuna

Lehenbailehen konpontzeko ahaleginetan ari gara. Udalak erabiltzen duen zerbitzariak defektuz egiten du salto gaztelerazko bertsiora, eta hori aldatzeko zerbitzaria bera aldatu beharra dago. Horretan ari gara.

Estitxu Elduaien, Udaleko komunikazio arduraduna.

Iradokizuna

- Enparan dorretxearen atzekaldean

Zergatik uzten zaie herritar partikularrei leku publikoetan monumentuak jartzen? Enparan dorretxearen atzean hala jarri dute batzuk lagun batzuen omenez. Jende asko ibiltzen da hor, eta umeak galdezka aritzen dira, eta guk ez dakigu zer erantzun.

Iberotarren auzoko bizilagun bat.

Erantzuna

Monumentuak eta oroitarriak jartzeko prozedura bat bete behar da, edozeinek ezin du jarri. Enparan dorretxe atzeko hori jartzeko ere egin zen prozedura, eta Udalak baimena eman zuen bere garaian hori jartzeko. Edozein oroitarri jartzeko bete egin behar da prozedura, eta Udalak eman behar du baimena.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

- Informazio gehiago

*Eskatuko genizuke udaletxeko harreraren egoten denak Azpeitiko ekintzei buruz informazio gehiago izatea. Izan ere, aurtun udalekuetara ezin izango dut joan, horko langile batek ez baitzekien nora joan behar nuen apuntatze-
ra. Milesker gutuna irakurtzeagatik.*

Azpeitiko herritarrek.

Erantzuna

Udaleko sarreraren egoten diren langileek izaten dute aipatu duzun gai horren inguruko informazioa. Zu bertaratu zinen egunean, orde, beste langile bat zegoen, berez sail horretakoa ez dena, eta hark ez zuen informazio hori. Une bateko kontua izan zen. Barkamena eskatzeko dizugu sortutako eragozpenengatik, baina horrelakoetan Gazte Informazio Bulegora jotzeko aukera ere baduzula gogorarazten dizugu.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Bidali zure iradokizuna, azpeitia.net helbidera edo utzi udaletxean, igerilekuan, kiroldegian eta udal liburutegian ditugun buzoietan.



www.azpeitia.net



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.

Udal albisteak uneoro ezagutzeko.

Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.

Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.

Inmigratio plana: Udala garatzen ari den planaren berri izan eta bertan parte hartzeko aukera izango duzu.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

Landeta-Zapatari saihesbidea egiteko lanak hasi dira

Proiektuaren lanak urtebetean amaitzea espero dute Udalak eta Foru Aldundiak

azpeitia-Azkotiko saihesbidearen lehen faseko lanak, Landeta-Zapatari, egiten hasi dira jada. Ekainaren 29an egin zuten lanen hasierako ekitaldi ofiziala Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Azpeitiko Udaleko ordezkariak, eta urtebetean amaitua izatea espero dute.

Landetako biribilgunean hasi eta Zapatarri parera iritsiko den errepide zatia egingo da orain. Zehazki, Landetako errotondatik abiatu eta GI-631 errepidean 210 bat metro egingo ditu, Azkoitiko noranzkoan. Ondoren, Zabaletxeko biribilgunea egingo da, eta handik Larreko industrialderantz egingo du saihesbideak, hura zeharkatu eta Atxubiagako biribilgunera, Azpeititik Beasainera doan errepidera iritsi arte.

Errepide berriaren zatiak 1.000 metro izango ditu, eta gehieneko malda %6koa izango da. Lanak amaitu ostean 3,59 metroko bi bide, 0,50 eta 1,25 metroko bazterbideak, eta 2 metroko espaloia izango ditu. Orotara 8 milioi euro inbertituko ditu diputazioak saihesbidean, eta lanak Altuna y Uria enpresak egingo ditu.

Saihesbidearen helburu nagusia Azpeitiko eta inguruetako “puntu beltzenetarikoa” konponbidea ematea da. Hala dio Julian Eizmendi alkateak. Hurrengo urratsa bigarren fasea egitea izango da, alegia saihesbidea Azkoitiraino iristea. “Ea datorren legealdian burututa ikusten dugu”. Alkatearen arabera, saihesbidea beharrezkoa da, berari esker “nabarmen” hobetuko delako trafikoa. Azpeitira sartu beharrik ez duten ibilgailuak errepide berritik joango baitira, herriko trafikoa, gutxitu, eta kanpokoak hobetuz.



Lanen inaugurazio ekitaldia.



Markel Olano eta Julian Eizmendi.



Lanak hasi dira jada Zabaletxe ondoan.

Loraldirik ikusgarriena saritzear

Santiago egunean ezagutuko dira balkoi eta leiho lehiaketako irabazleak



azpeitiko lehen balkoi eta leiho lehiaketa azken txanpara iristear da. Uztaileko aurreneko astean epaimahaiak hogeitamar balkoi eta leiho aukeratu zituen, eta euren argazkiak udaletxe sarreraren egon dira ikusgai, herritarrek euren gustukoenera botoa emateko. Orain botoak zenbatu eta sariak prestatzen ari dira Ingurumen Fundazioa eta Ingurumen

Saila. Udaleko ordezkari eta lorezaintzan adituek bi saritu aukeratuko dituzte, balkoi originalenarena eta oparoenarena. Hirugarren saritua herritarren botoek aukeratu dute. Irabazleak uztailaren 25ean ezagutuko dira, Santiago egunean, herriko plazan, 11:00etan. Hemen epaimahaiak aukeratutako balkoi eta leihoetako batzuk.



Epaimahaiaren eta herritarren oniritziarekin


Valentin Garcia azpeitiarrak irabazi du Antzerki Topaketetako kartelen lehiaketa

epaimahaia eta herritarrek bat etorri dira XXVII antzerki topaketetako kartela aukeratzeko. Valentin Garciaren lana gustatu zaio gehien udaleko ordezkariak eta arte ederretan adituek osatzen duten epaimahaiari, eta herritarren bozketan ere bigarren boto gehien jaso ditu. “Begen arre-ta bereganatzen duen lana da, antzerkiarekin zerikusia du, eta Azpeitiarekin zerikusia duen sinbologia oso modu originalean jasotzen du”. Hiru ezaugarri horiengatik aukeratu du epaimahaiak aurkeztutako 47 lanen artean Garciarena, Pilar Arrieta Kultura teknikariak jakinarazi duenez.

Batik bat Azpeitiko sinbologia aurkezteko modu “original eta berezia” gustatu zaie. Batetik, kartelaren fondoan herriko barandillaren erreferentzia ageri da, eta Loiolako irudia ere oso modu berezian dago sartuta. Argazkian ageri den pertsonaren oinetakoetan, berriz, topaketetako maskara ageri da. “Erreferentzia guzti horiek sartu ditu, baina oso modu iradokitzailean, eta hori da gustatu dena”, gaineratu du Kultura teknikariak.

Valentin Garcia azpeitiarra “oso gustura” agertu da jasotako sariarekin. “Lehiaketa honekin banuen arantza bat, eta azkenean lortu dut ateratzea”, azaldu du diseinatzaileak. Izan ere, 18 urtetan aurkeztu da, eta orain arte ez zuen saririk lortu. Kartelaren hedapenaz gain, 900 euroko dirusaria ere jasoko du Garciak lehiaketa irabazteagatik.

Diseinuaren munduan eskarmentu handiko gizona da Garcia. 20 urte daramatza diseinatzaile lanetan, eta besteak beste, Najerako altzarien lehiaketa eskuratu du, eta Cibelesko pasarelako ardoen etiketak ere berak diseinatuak dira.



Lehiaketako kartel irabazlea.

Sasoian da Azpeitiko kirola

Kirol sailak zorionak eman nahi dizkie herriko klub eta kirolariei, amaitu berri den ikasturtean emaitza paregabeak lortu dituztelako.



Lagun Onakeko jokalaria, igoera faseko partidari.

Ikasturte oparoa izan da Azpeitiko kirolarentzat amaitu berri dena. Herriko hainbat klubek emaitza historikoak lortu dituzte, eskola kirolean aritzen diren herriko ordezkariak maila paregabea eman dute, eta Euskal Herrian nahiz bertatik kanpo egin diren kirol proba garrantzitsuetan nabarmena izan da azpeitiarren parte hartzea.

Udaleko Kirol sailak herriko kirol elkar-teak, ikastetxe-ikastolak eta norbanakoak zoriondu nahi ditu egindako lanagatik eta kirolean parte hartzea sustatzeko egindako ahaleginagatik. Beste behin ere agerian gelditu da azpeitiarrek kirola egiteko duten zaletasuna eta proba ezberdinetan parte hartzeko duten grina. “Emaitza historikoak lortu dituzte askok, lan gogorra egin dute, eta gure herriaren ordezkaritza

bikain bihurtu dira. Txalotzekoa da egin-dako lana”, hala adierazi du Julian Kortajarena Kiroletako batzorde buruak.

Lanaren ondorioz lortzen dira emaitzak, eta kirolariak egin duten moduan, Kirol sailak ere hobetzen jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi du. Herriko kirol talde eta kirolariak ahalik eta emaitza hoberenak lortzen laguntzen jarraituko du, parte hartzea sustatzen, beti ere kirola eta osasuna uztartzeko printzipio nagusiarekin. “Ahaleginak merezi duela uste dugu, jasotako erantzuna paregabea delako”. Julian Kortajarenaren hitzak dira.

Horrez gain, herrian jokatzeko diren maila handiko probak babesten ere jarraituko du Kirol sailak. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiak

arrakasta handia izan du aurtengoa ere, eta Udalak partaideentzat antolatutako haurtzaindegi zerbitzuak ere harrera ona izan du. Mendi lasterketak, rallyak, harri handien harri jasotze txapelketa, urrezko aizkorako finalak, Erreminta jaialdiak... Ekimen horiek guztiek lagundu ditu Udalak, bertako kirolari eta kirola indartzeko asmoz. Eta baita bestelako kirolak ere: Azpeitiko Erremonte Txapelketak pilota modalitate horretako profesional gazteei txapelketetako bidea zabaltzen die, esaterako, etorkizuneko pilotari hoberenei abiatzen lagunduz. “Krisiaren ondorioz aurrekontu zorrotza dugu aurtengorako, baina orain arte bezala kirolaren esparru guztietan beharrezko inbertsioak egiten saiatuko gara”, azaldu du Kiroletako batzorde buruak. Aurtengo emaitzak kontuan izanda, mereziko du.

Historiako lorpen handienak

Azpeitiko zenbait klubek inoizko emaitzarik hoberenak lortu dituzte



Iraurgi Saski Baloi Taldea.

hiru igoera fase jokatu dira Azpeitian denboraldi amaieran. Lagun Onak Futbol Taldeak, Lan Mobel Iraurgi Saski Baloi Taldeak eta Azpeitiko Areto Futbol Taldeak mailaz igotzeko aukera izan dute, euren txapelketetan lortutako emaitza paregabeen ondorioz. Azkenean areto futbolekoek soilik lortu dute igotzea, baina historiako emaitza onenak lortu dituzte hiru klubek.


Lagun Onak futbol taldeak hirugarren mailako txapelduna izan da. Horri esker, Espainiako Bigarren B mailara igotzeko aukera izan du, eta horretarako igoera fasea jokatzea, Garmendipen eta Azpeitia osoan ilusioa piztuz. Azkenean ez du lortu, baina Joxe Mari Larrañaga presidenteak argi du “denboraldi borobila” izan dela aurtengoan. Goxokia eskuan izan eta galtzea tristeza izan dela onartzen du, baina lortutako emaitza historikoa dela gogorarazi du.

Hori gutxi balitz bezala, hirugarren mailako txapelduna izanda Espainiako Kopako kanporaketa jokatzeo aukera izango du. Abuztu bukaeran jokatu da lehen partida, eta orduan berriro itzuliko da ilusioa Garmendipera. Eta hori guztia bertako jokalariei eta entrenatzailearen aldeko apustua eginda. Azpeitiko kirolarien maila agerian gelditu da berriro ere.

Lan Mobel Iraurgi Saski Baloi taldeak ere antzerako denboraldia izan du. EBA ligako txapeldun izan da Azpeitiko taldea, eta horrek igoera fasea jokatzeo aukera eskaini dio, nahiz eta gero garaipenik ez lortu. Igoera fase horrek gorputzaldi garratza utzi arren txalotzeko denboraldia egin du taldeak.

Azpeitiko Areto Futbol taldeak ere igoera fasea jokatu du, eta bigarren

postuan gelditu. Horri esker, Euskal Ligara igotzeko txartela lortu du, lehen postuan sailkatutako taldeak igotzeari uko egin ostean.



Ilunpeko pilotariak.



Lagun Onak Futbol Taldea.


Herriko taldeen emaitza onak aipatzearakoan ezin ahaztu Ilunpe pilota elkarrekin ere. Herriarteko txapelketan final aurrekoetara iritsi dira aurtengoan ere, nahiz eta gero Hernaniren aurka galdu. Ikasberri eta Lagun Onak CDko 2. urteko kadeteek, berriz, Gipuzkoako Kopako finala jokatu zuten elkarren kontra, eta Lagun Onakekoek irabazi zuten txapela, penaltietara.

Parte hartzearen eredu

Klubek ez ezik, norbanako azpeitiarrek ere erakutsi dute kirolerako grina ikasturte honetan. Euskal Herrian eta hemendik kanpo jokatu diren proba ezberdinetan aipagarria izan da azpeitiarren parte hartzea, eta hori saritu nahi izan dute hainbat antolatzailek. Hala, Quebrantahuesos bizikleta probako antolatzaileek aipamen berezia egin diote Lagun OnakTxirrindulari elkarteari, parte hartzaile gehien emateagatik. Lilatoi lasterketako antolatzaileek ere eskertu egin dute azpeitiarren parte hartzea, eta beste horrenbeste gertatu da Behobia-Donostia lasterketako antolatzaileekin ere.



Kirol ekintza ugari egin dira umeekin.



2009ko lilatoia.

Eskola kirola

Biztanle kopuru antzekoa duten herriein alderatuta eskola-kirolean partaidetza handienetakoa dago Azpeitian. Amaitu berri den ikasturtean 1.250 ikasle inguruk hartu dute parte eskola kiroleko ekintzetan, eta monitore-entrenatzaile lanetan aritu direnak 150 izan dira. Eta ez dituzte nolanahiko emaitzak lortu:

Euskadiko txapelketan, Ikasberriko infantil neskek Euskal Kirol eta Jokoetan Euskadiko txapeldunak izan dira, eta Urola Ikastolako infantilak txapeldunordeak. Iraurgi Saskibalo taldeko Iragaz taldeak, berriaz, infantil nesketan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak lortu dituzte. Gipuzkoako txapelketan, gainera, Ikasberriko alebin neskek areto futboleko Gipuzkoako txapeldunak izan dira. Gipuzkoako



1.250 ikasle inguru aritu da eskola kirolean.

txapelketetako final laurden eta finalerdietarako talde ugari iritsi dira, besteak beste saskibaloian, eskupilotan eta paletan.

Eskola-Kirolaren egitura bultzatzeko, Udalak hitzarmena egin du herriko ikastola-ikastetxe guztiekin, eta horren baitan dago Eskola-Kirol Kontseilua: eskola-umeen ikasturteko kirol-jardueren programa finkatzen eta jarraipena egiteko ardura du. Kontseilu hori, ikastola-ikastetxe guztietako kirol-koordinatzaile



Kirol Ekintzarako umeen zaintza zerbitzua.

eta Udal ordezkariak osaturik dago, eta urritik-ekainara arte astean behin biltzen da.

Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritzen da kontseilua, ikasturte programa gauzatzeko: Iraurgi SB taldearekin, CD.Lagun-Onakekin, Azpeitiko Aretoko Futbol Taldearekin, Izarraitz Igeri Elkartarekin, Ikasberri Pilota Elkartarekin, eta Azpeitia-Azkoitia Xeye Atletismo K.Earekin.



“Azpeitian txapela janzteak aparteko motibazioa eman dit”

Ibon Agirrezabalaga *Matxin IV* Azpeitiko X. Erremonte txapelketako irabazlea.

Udalak sustatzen duen Azpeitiko erremonte txapelketak X. edizioa izan du aurtengoan. Ibon Agirrezabalaga *Matxin IV*ak Xanti Aizpuru *Aizpuru II* arekin batera jantzi du aurtengo txapela. Finalera jarraitzaile gehien eman zituen pilotari azkoitiarra gustura dago lortutakoarekin.

Txapela irabazita, gustura?

Gustura, bai, batik bat finala polita izan zelako: lagunak joan ziren ikustera, despedida izan zuten, eta frontoira agertu ziren, eta hori oso polita izan zen niretzat. Neuk egindako jokoarekin ez nintzen bereziki gustura gelditu, baina bikoteak lagundu zidan eta azkenean guztia primeran atera zen.

Zer moduzko giroa somatu duzu aurtengo txapelketan?

Uste dut partidak iluntzetik arratsaldera pasatze horrek mesede egin diola. Ni neu ez nintzen horren aldekoa, baina aurtengoa ikusita erabaki egokia

iruditzen zait. Azpeitiko frontoia nahiko hotza gelditzen da berez, handia delako eta berotasuna somatzeko guztia bete behar delako. Norberak bere lagunak edo jarraitzaileak ematen ez baditu, ez da aparteko girorik egoten, baina aurtan pixka bat hobetu dela iruditzen zait.

Azpeitiko txapelketaren helburua erremontista debutariei bidea irekitzea da. Betetzen al du xede hori?

Baietz esango nuke. Erremontean txapelketak jokatzeko oso aukera gutxi izaten dituzu, eta aukera ematen dizutenean bereziki motibatzen zara. Irabazle izateko aukera horrek, diru-sariak... gehiago ematera

bultzatzen zaitu. Txapelketak beti dira ezberdinak eta bereziak, eta Azpeitikoak hori bizitzeko aukera ematen dizu. Estimazio handia du pilotarien artean.

Eta zeuri, pertsonalki, lagundu dizu txapelketa irabazteak?

Egia esan, Azpeitian irabazi ala ez, Galarretan ez duzu aukera gehiago izaten: bi kontuak aparte doaz. Azpeitian irabazteak, ordea, neuri, pertsonalki, eman dit aparteko motibazioa: orduz geroztik gogo gehiagoz ari naiz jokatzeko eta partida gehiago irabazten ditut. Mesede egin didala ez dut zalantzarik.

Osamen zentroa Baigera Iera



Buruko gaixotasunen zentroa kalera ekartzea erabaki du Foru Aldundiak

buruko gaixotasunak dituztenei asistentzia psikosoziala eskaini eta birgaitzea bideratzen du Osamen zentroak. Egun Jesus eta Maria komentuko lokalean dago kokatuta, eta 18 erabiltzailek jasotzen dute bertan zerbitzua, baina handik Baigera leko bigarren solairura ekartzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, “kalean eta herriaren erdigunean” egoteko. Hala azaldu du Ana Mendizabal Gizarte Zerbitzuetako batzorde buruak. Aldaketa udazkenean egitea aurreikusi du Udalak.

Baigerako eraikinean lehen Bistaeder eguneko zentroa zegoen kokatua, baina hori Julian Elortzako instalazio berrietara pasatu ostean libre gelditu dira lehengo eguneko zentroko instalazioak. Orain, Foru Aldundiak egokitzen jo ditu Osamen zentroa kokatzeko.

Osamen zentroaren tokia Udalak jartzen du, eta kudeaketaz Gipuzkoako Foru Aldundia arduratzen da. Hemendik aurrera ere hala jarraituko du.

Egun pasa, azkenean, Nuarbera



Erretiratuen egun pasa eta bazkarian 80 lagun inguruk hartu dute parte

erretiratuen Xoxoteko eguna Nuarbe eta Aratz Errekako eguna bihurtu da aurtén. Izan ere, eguraldi txarra zela medio, egitaraua aldatzea erabaki zuten Gizarte zerbitzuetako arduradunek. Hala, goizean Nuarbeko urtegiara joan ziren erretiratuak, eta bertako ibilbidean osteratxoa egin zuten. Ondoren Aratz-Errekan izan zuten hamaiketako eta meza, eta Baigera Iera bazkaria. 70 lagun izan ziren goizeko ekitaldietan, eta eguerdiko bazkarian 80.

Egun pasan parte hartu zuten jubilatuz eta boluntarioak “oso gustura” ibili zirela esan zuten, bai goizeko ibilaldian eta baita bazkarian ere. Trikitilarien doinuek alaituta, giro paregabea izan zuten bai Nuarben, bai Aratz Errekan eta baita Sanjuandegiko jatetxean ere.

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskerrak eman nahi dizkie egun horretan boluntario lanetan aritu diren herritarrei. Udalaren deialdiari erantzunez asko izan dira jubilatuz autoz garraiatzeko boluntario aurkeztu eta lan horretan ibili direnak, eta Udalak benetan eskertzen die egindako lana.

Herritarrek erabiltzeko



Urola Ikastolako kirol gunea herritarrei zabaltzeko hitzarmena sinatu dute

Urola Ikastolako kirol gunea partekatzeko hitzarmena sinatu dute ikastetxe horretako arduradunek eta Azpeitiko Udalak. Ikastetxearen eraikin berria egin zutenean, kirol instalazio batzuk egin ziren, eta orain horiek egokitu dira, ikastetxeak ez ezik herritarrek ere erabiltzeko modua izan ditzaten.

Izan ere, hori da hitzarmen honen helburua: “Urola Ikastolako kirol gunea herritarrengana zabaltzea, azpeitiarrak kirola egiteko instalazio eta gune gehiago eta egokiagoak izan ditzaten”. Hala azaldu du Julian Eizmendi alkateak.

Kirol gunea herritarren erabilpenerako egokitzeko lan batzuk egin ditu Udalak: esaterako, eraikin txiki bat egin da aldagelak jarri eta lehiaketetako epaileentzako toki bat izateko, eta saskibaloirako saskiak eta futbolerako ateak ere jarri dira, guztiak ere tolestu eta jasotzen direnak.

Akordio hau azpeitiarrentzat onuragarria izango delakoan dago Udala, bai norbanakoentzat eta baita herriko kirol taldeentzat ere, herrian kirola egiteko toki bat gehiago izango dutelako.

Errekortari hoberenen erakustaldia



‘Errekortari 2009’ lehiaketako bigarren finalerdia jokatu da Azpeitian

Jendez beteta izan zen Azpeitiko zezen plaza uztailaren 19an. Errekortari 2009 lehiaketako finalerdia jokatu zen bertan, eta herrian dagoen zaletasuna agerian gelditu zen beste behin ere. Zezenbeltz elkarteak antolatu du Azpeitiko finalerdia, iaz egin bezala, eta Azpeitiko Udalaren babesa izan du. Txapelketa Taurovision elkartearen antolatzen du, eta finala Tafallan (Nafarroa) jokatu da abuztuaren 9an.

Euskal Herriko eta Estatuko errekortari hoberenak hartu zuten parte Azpeitiko finalerdian, eta aparteko giroa egon zen zezen plazan. Felipe Sota Taurovisioneko ordezkariaren arabera bereziki gustura etortzen dira Azpeitira, bertan jokatu diren hiru finalerdian aparteko zaletasuna erakutsi dutelako azpeitiarrek.

Horrez gain, Zezenbeltz taldekoek 100 euroko saria eta oroigarria eman zien errekorre hoberena egin zuen errekortariari.

“Familiak lan handia egin dezake, beti ere ondo informatuta badago”

‘Nola egin aurre drogazaletasunaren arazoari familiatik?’ kanpainaren bigarren faseari ekin dio Udalak. Gaia familian jorratzea “oso garrantzitsua” dela dio Miren Prat teknikariak.



Drogazaletasuna familiatik jorratzeko kanpaina indartu duzue udan. zergatik?

Udan festa giroa izaten da nagusi inguruko herrietan eta garrantzitsua iruditzen zaigu gazteak eta beraiei familiak egon daitezkeen arriskuetaz ohartaraztea. Ikastetxeetan drogei buruz hitzegiten den arren, familiaren barruan ere landu behar da. Drogen “modak” aldatzen joaten dira eta guraso batzuk izan dezaketen “drogatuaren” irudiak batzuetan ez du zerikusirik orain dauden droga batzuk eragiten dituzten sintomekin.

Nori zuzendutako kanpaina da?

Batez ere 12tik 18ra bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Iruditzen zaigu drogak kontsumitzen hasteko adinik arriskutsuenetarikoa dela.

Zergatik adin zehatz horretako gazteak eta euren gurasoak eta ez beste batzuk?

Gaur egun 12 urteko gazteak ikusten dira kalean eta gazte hauetako asko ez dira nahiko helduak zenbait “arriskuri” aurre egiteko. Hau gaztearen izaeraren edo pertsonalitateak baldintzatzen du, eta izaera indartsu bat lantzeko, familiak izugarritzko garrantzia du. Familiak segurtasun “toki” bat izan beharko luke, gazteak bere beldurrak eta irrikak lasaitasunez adierazteko gune bat. Familiari zuzendu gara begiak ireki ditzan. Askotan entzuten da ama edo aita baten ahotik “nirearen lagunak bai, baina nireak inoiz ez”. Ez lukete hain ziur egon behar. Honekin ez dugu alarma exageratu bat piztu nahi,

baina bai argi esan ez dela beti besteen etxeetan gertatzen.

Beraz, familia oso garrantzitsua da.

Bai. Familiak lan handia egin dezake, beti ere ondo informatua badago eta gaztea ulertzeko prest badago. Familiak ez luke etsai bat izan behar gaztearentzat, eta gazte askok horrela ikusten dute familia. Familiaren EZ haundi hori askotan ez da nahikoa gazteak ez badu EZ horren zergaitia barneratzen eta bere egiten. Droga kontsumitzeak ez du kaltegarria izan behar familiak esandakoari uko egiten zaiolako bakarrik, bere osasun mental eta fisikorako kaltegarria dela ulertu behar du gazteak.

Informazio esku orriak banatu dituzue, eta webgunean ere jarri duzue informazioa. Horrek zertan lagun dezake?

Esku orrien bitartez, 12tik 18ra bitarteko gazteak dauden etxe guztietara iritsi nahi izan dugu. Pentsatzen dugu, informazioa etxeko ateraino iritsiz gero, errazagoa izango dela familiek informatu nahi izatea. Baina esku orri baten informazio gutxi sartzen da, horregatik erabaki dugu webgunean ere sartzea. Webguneako informazioa handitzen joango gara pixkanaka, Azpeitiko gazteen artean ikusten ditugun beharren arabera.

Azpeitian bertan ere oso laster hasiko dira jaiak. egun horietarako zerbitzu berezirik aurreikusi al duzue?

Bai, festetan bi egunez, uztailaren 30 eta 31an, alkoholemia froga egin ahal izateko karpa bat egongo da Olazko Amaren Plazan. Interesgarria iruditzen zaigu, bai autoa hartu nehar dutenentzat eta bai, nahiz eta autoa hartu beharrik ez izan, kuriositatea duenentzat. Agian, edaten dugunari zifra bat ipintzeak kontzienteago egingo gaitu.

Gaia lantzeko dagoeneko bi eskuorri banatu dituzue. kanpainak izango al du jarraipenik? Bai, bi eskuorri banatu ditugu. Esan dugun bezala, kanpaina hiru zutabetan oinarritzen da, lehenengo biak burutu ditugu, PERTSONA eta SUSTANTZIA. Urrengo atala INGURUA izango da. Honez gain, datorren kurtsorako ere ikastetxeetako programek martxan jarraituko dute eta beharrak somatu ahal, hauei erantzuna ematen saiatuko gara.

“Euskararen udal ordenantzak ez du gaztelania diskriminatzen”

Espainiako Auzitegi Gorenak araudia bertan behera utzi ostean, ordenantza berriak prestatzen ari da Udala.



Ana Mendizabal, Julian Eizmendi, Iñaki Agirreazkuenaga, Maria Jesus Aranburu eta Patxi Saez.

azpeitiko euskararen ordentzaren 4. artikulua honela dio: *Azpeitiko Udal Zerbitzuek, hiritarrei harrera egiterakoan eta emandako erantzunetan, hizkuntza dela-eta ez du inor diskriminatuko. Herritarrek udal langileekin harremanetan jartzeko erabiltzen duen hizkuntza ofizialean jasoko du udal langilearen erantzuna.*

Artikulu horrek argi uzten du ordenantzak gaztelania diskriminatzeko inolako asmorik ez duela. Hala uste du Azpeitiko Udalak, eta horrenbestez, Espainiako Auzitegi Gorenak arau hori oker ulertu duela. Epaitegi horrek ordenantza bertan behera uztea erabaki du, gaztelania diskriminatzen duela argudiatuta.

Julian Eizmendiren arabera, ordenantzak “bi hizkuntzak erabiltzeko aukera berdina izatea du helburu, euskara erabiltzeko eskubidea teorikoa izatetik praktiko izatera iristea, euskara ez diskriminatzea, bi hizkuntzak bermatuta egotea”. Gaztelania diskriminatzeko asmorik ez duenaren erakusle bere garaian Azpeitiko Udalean zeuden PSOE eta PPko ordezkariak ere onartu zutela gogora arazi du alkateak.


Auzitegi Gorenaren argudioa baieztatzen duen frogarik ez dagoela ere azpimarratu du alkateak. “Ordenantza in-

darrean dagoenetik gaztelania diskriminatzen dela-eta ez da herritar edo erakunde bakar baten salaketarik egon”. Azpeitian egoera “berezia” dela gogora arazi du, herritarren %95a euskal hiztuna dela, eta horiek euskara erabiltzeko hainbat sektoretan zituzten gabeziak osatu asmoz sortu dela ordenantza, “euskarak hainbat sektoretan zuen diskriminazio hori gainditzeko”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak “guztiz” babesten du Azpeitiko Udalak egindako balorazioa, eta Azpeitiko euskara ordenantzaren oinarriekin “erabat bat” datozela adierazi du Maria Jesus Aranburu Euskara eta Kultura diputatuak: “Azpeitiko euskararen ordenantzaren helburu berdinak ditu Aldundiak onartutako dekretuak ere: euskara eta gaztelaniaren arteko parekotasuna garantizatu eta euskaraz bizitzea nahi dutenen eskubidea bermatzea”.

Espainiako auzitegiaren erabakiaren ostean, ordenantza berriak idaztea erabaki du Udalak. Gaiak arduratzen ari den Iñaki Agirreazkuenaga abokatuak idatziko du testu berria, gaztelera ez dela diskriminatzen printzipioa ahalik eta garbien zehaztuz. Testu berria irailerako egitea aurreikusi dute, eta behin hori esku artean izanda, beharrezko pausoak emango dira araudi berria onartzeko.

agendauztaila



UZTAILA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30	31	



24, ostirala

URREZKO AIZKOLARIEN BANAKAKO
FINALA (23 URTE AZPIKOA)
Lekua: Izarraitz Frontoia
Ordua: 20:00

AZPEITIA DANTZAN
PERUKO COSANDANEA TALDEA eta
SAHATSA DANTZA TALDEA
Sahatsa taldeko zuzendaria: Juan Luis Lizabe
Lekua: Enparantza Nagusia
Ordua: Gaueko 22:00ak

25, larunbata

BASERRITARREN EGUNA
11:00 Ganadu Erakusketa eta X Gazta
Lehiaketa
12:00 XXXVI sagardo lehiaketa Enparantza
Nagusian eta Txekor eta hegaluzea parrilan
dastatzeko aukera

Bertsolariak

LORALDI BALKOI ETA LEHIO LEHIAKE-
TAKO SARI BANAKETA

18:30 DESENKAJONAMENTUA
Lekua: Zezen Plaza

22:00 Musika emanaldi bikaina
Lekua: Enparantza Nagusia

26, igandea

ERLOJUAREN AURKAKO I.MENDI
LASTERKETA. I. Euskal Herriko Bertical
Txapelketa

Irteera: Ezkerregegi baserria

Amaiera: Xoxoteko San Inazio iruditan
Ordua: 10:00
Sari banaketa: Olazko Amaren Plaza

UMEEN EGUNA
ERRALDOIEN DESFILEA

- 10:45 UMEEN KORPORAZIOA udaletxe-
tik Sebastian Donearen parrokiruntz

- 11:00 UMEEN MEZA NAGUSIA

- 11:30 ERRALDOI DESFILE IKUSGARRIA

Umeen egun alaia hau ospatzeko haur guz-
tiak baserritar jantziak ateratzea eskertzen
da

XXIX. SAN INAZIO SARIA

Lekua: Enparantza Nagusia
Ordua: 16:00

30, osteguna

SAN INAZIO BEZPERA
TXUPINAZOA

Umeentzako parkeak

Gauean musika emanaldi bikainak

31, ostirala

SAN INAZIO EGUNA
SAN INAZIOETAKO PILOTA PARTIDAK

AZPEITIA DANTZAN
SRI LANKAKO SAMA DANTZA TALDEA

Lekua: Olazko Amaren Plaza
Ordua: Gaueko 23:30ak

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6
Uztailaren 23, 25, 26 eta 29an, eta abuztua-
ren 3, 8, 9, 12, eta 14an
Telefonoa: 943 81 59 74

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Uztailaren 21 eta 27an, eta abuztuaren 1, 2,
5, 7, 11 eta 13.
Telefonoa: 943 81 13 50

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3
Uztailaren 22, 28 eta 31an.

Telefonoa: 943 81 19 49

EIZAGIRRE (orain arteko Garcia de Miguel).
Enparan 29
Uztailaren 24 eta 30ean, eta abuztuaren 4, 6,
10, 15, 16, 17, 19, 21, 24, 27, 29, 30 eta 31.
Telefonoa: 943 81 12 74

JACOME. Garmendi 21
Abuztuaren 18, 20, 22, 23, 25, 26 eta 28.
Telefonoa: 943 08 02 58

